



DERIOKO UDALA

ADMINISTRARI LAN POLTSA OSATZEKO OINARRIAK DERIOKO UDALEAN ALDI BATEAKO ZERBITZUAK EMATEKO

Lehena.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Administrazioen lan-poltsa bat egitea, Derioko Udalan aldi baterako zerbitzuak emateko. Lanpostuak C taldean, C-1 azpitaldean daude sailkatuta. Zerbitzuak emango dira titularren baimenak, eszedentziak, oporrak edo mediku-bajak gertatzen direnean. Dena den, lan-poltsa ezin da erabili lanpostuak hutsik geratzen badira.

Bigarrena.- hautagaiek bete beharreko baldintzak

1. Hautaketa-prosezuan parte hartu izateko, ondoko baldintzak bete behar dira:

a) Espainiar nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko herrialderen batena, edo Europar Batasunak egindako nazioarteko hitzar menak direla bide, eta Espainiak izenpetu baldin baditu, langileen zirkulazio askea ezarri daitekeen estaturen batekoa izatea. Parte hartu ahal izango dute, orobat, Europar Batasuneko nazionalitatea dutenen ezkontideek, beti ere, legez bananduta ez badaude. Baita haien eta ezkontideen ondorengoek ere, beti ere, baldintza hauekin: ezkontideak legez bananduta ez egotea eta ondorengoak 21 urtetik beherakoak izatea edo, zaharragoak izanik, haien kontura bizitzea.

b) 16 urte eginda edukitzea eta derrigorrezko erretirorako adinik ez edukitzea.


c) Honako titulazioa izatea: Batxiler titulua edo lanbide heziketako bigarren gradua edo baliokidea, edo berau lortzeko eskubideak ordaindu izana eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

d) Eginkizunak betetzeko behar besteko gaitasun funtzionala izatea.

e) Estatuko, autonomia erkidegoetako edo tokiko administrazioetako zerbitzutik diziplina-espediente bidez bereizita ez egotea; edota, kargu publikoak betetzeko ezgaitasunik ez izatea epailearen ebazpenen baten ondorioz, edota funtzionario kidegoa betetzeko edo lan-hitzarmeneko postuan zegoenean betetzen zituen antzeko funtzioak betetzetik apartatua edo ezgaitua izatea. Beste Estatu bateko herritarra izanez gero, antzeko egoera baten ezgaitua ez izatea edota diziplina zigorrik edo antzekorik ez izatea bere Estatuan enplegu publikoan aritzeko dagokionez.

f) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege kausaren batean sarturik ez izatea, herri administrazioen zerbitzura dauden langileentzat bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araubidearen arabera.

2. hautaketa-prosezuan parte hartu nahi dutenek eskaera aurkezteko epea amaitu baino lehenago bete beharko dituzte baldintza guztiak, eta hautaketa-prozesu osoan zehar bete beharko dituzte.



DERIOKO UDALA

Hirugarrena.- Eskaerak eta onarpena

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean, hauta-gaiek, eskatzen zaizkien oinarrietako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute. Eskabideak behar bezala bete eta alkatetzari zuzenduta aurkeztuko dira Udaletxeko bulegoan (herriko plaza, 3), betiere, behar den moduan beteta 5 egun baliodunetan, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta. Eskari-orriak egingo dira **I. Eranskinaren** ereduaren arabera. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak –Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak- 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu daitezke eskaerak.

Postetxez aurkeztutako eskabideak kartazal irekian aurkeztuko dira, Postetxeko funtzionarioek data eta zigilua jarri diezaieten egiaztatu baino lehen

Langile-gaiek aurkezturiko informazio guztia fitxa tegi batean jasoko da, eta fitxategi hori administrazio honetan edo lan-poltsa honetako datuak eskatzen dituzten administrazio honetako hautespen prozesua kudeatzeko eta aldi baterako nahiz bitarteko langileak izendatzeko besterik ez da erabiliko. Fitxategi honen erabilera eta funtzionamendua abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan eta otsailaren 25eko 2/2004 Legean, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoan aurreikusitakoari lotuko zaizkio. Eskaeretan honakoa agertuko da:

- a) Datu pertsonak osoak.
- b) Baloratuko diren merituenak. Ez dira baloratuko eskaeran zehazten ez diren merituenak eta kuantifikatu gabe dauden merituenak.

Eskaerari haxe gehituko zaio:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- b) Dagokion lanposturako eskatzen den titulazioaren fotokopia.
- c) Eskaeran aipatutako eta zehaztutako merituen agiri bidezko egiaztatzea.
 - Merituenak egiaztatzeko alderdi hauek izango dira kontuan: Administrazio publikoetan eskainitako zerbitzuak dagokion erakunde gaituak emandako ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dira, hauek zehaztuz; lan edo zerbitzu egindako denbora tartea eta lan-jardunaren ehunekoa. Derioko Udalean egindako zerbitzuak, eskaeran hala alegatu badira, ez dira dokumentu bidez egiaztatu behar izango, eta eta hautagaien espediente pertsonaletan ageri diren datuen arabera baloratuko dira.
 - Sektore pribatuan eskainitako zerbitzuak enpresaren agiria edo lan-kontratua eta (gainera) Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren agiriaren kopia bidez egiaztatu beharko dira, baita lanpostua zehazten duen enpresaren ziurtagiria eta egindako lanak ere.
 - Prestakuntza osagarria ikastaroa eman duen erakunde ofizialaren ziurtagiri bidez edo lortutako tituluaren bidez egiaztatuko da. Bietan erakunde antolatzailearen izena, ikastaroaren izena, eta ordu kopurua agertu beharko dira eta hezkuntza programa. Ez dira kontuan izango oinarri hauetan eskatzen den informazioa ematen ez duten ziurtagiriak.
 - Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko: Euskarazko egiaztatagiri edo tituluaren kopia, halaxe ezartzen baitu 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila



DERIOKO UDALA

egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena (EHAA 219, 2010-11-15) eta 47/2012 Dekretuak, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofiziala aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, alkatetzak, ebazpena emango du onartutakoen eta bazter utzi takoen behin-behineko zerrenda onartzeko. Ebazpena Udaletxeko Iragarki Taulan eta Derioko Udalaren honako webgunean. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, alkatetzak, ebazpena emango du onartutakoen eta bazter utzi takoen behin-behineko zerrenda onartzeko. Ebazpena Udaletxeko Iragarki Taulan eta Udaleko honako web orrian argitaratuko da.

Laugarrena.- Epaimahaia

Epaimahaian honakoak egongo dira: Presidente bat, Idazkari bat eta hiru bokal:

- **Presidente:** Nahia Beneitez Tejera
- **Idazkaria:** Eva Ganuza Perez
- **Bokalak:** María Cambeiro Salgado, Rosa Santos Montes

Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu prozeduran, eta hala jakinaraziko diote Udal buruari, baldin eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren Legeak- 23 artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen bada. Aurreko kasuetako bat gertatzen denean hautagaiek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, betiere aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat. Horrelakoa gertatzen bada ordezkari bat izendatuko da.

Epaimahaiko kide guztiek izango dituzte hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, honek ez baitu botorik edukiko. Bertaratutakoen botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak eta hainbanaketa egonez gero, epaimahaiburuaren botoak erabakiko du.

Epaimahaiak oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu eta deialdia behar bezala garatzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu.

Bosgarrena.- Hautaketa-prozesua

Hautaketa-prozesua izango da merezimenduen lehiaketa, berdintasun-printzipioak, merituen eta gaitasuna errespetatuz. Hautaketa prozesua honela zango da, azterketa eta hautagaiek ailegatutako merezimenduen balorazioa. Hautagaiei puntuazioak emango zaizkie deialdiko baremoaren arabera.

Deialdi honen meritu-baremoa honako hau da:

1. Euskara, gehienez 25 puntu:



DERIOKO UDALA

1. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea: 5 puntu
2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea: 20 puntu
3. Hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea: 25 puntu

2. Lan-esperientzia, gehienez, 20 puntu:

1.1. Herri Administrazioan administrari plazan egindako zerbitzuak, lan-hitzarmeneko kontratuaz zein funtzionario moduan.

— 0,25 puntu lanean ibilitako hilabete bakoitzeko, gehienez, 12 puntu. Bakarrik konputatuko dira hilabete baino gehiagoko lan-aldiak. Konputatuko den hilabete osoa ez bada lanean egon honako formula erabiliko da egunak kalkulatzeko helburuarekin:
 $(0,25/30) \times \text{egun kopurua}$, dezimal bi hartuko dira puntuaziorako.

1.2. Sektore pribatuen egindako lanengatik, bete behar diren lanpostuaren funtzioak burutu direnak:

— 0,10 puntu lanean ibilitako hilabete bakoitzeko, gehienez 8 puntu. S Bakarrik konputatuko dira hilabete baino gehiagoko lan-aldiak. Konputatuko den hilabete osoa ez bada lanean egon honako formula erabiliko da egunak kalkulatzeko helburuarekin:
 $(0,25/30) \times \text{egun kopurua}$, dezimal bi hartuko dira puntuaziorako.

3. Prestakuntza, gehienez 15 puntu:

2.1. Erakunde Publikoek emandako edo homologatutako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroetan ibili izanagatik eta 4 orduko ikastaroak izan beharko dira, eta ordu kopuruaren arabera baloratzen direnak:

- 1) Administrazioarekin eta administrazio-prozedura
- 2) Hirigintza
- 3) Publikoari arreta
- 4) Aurrekontuak /kontabilitatea
- 5) Diru-laguntzak
- 6) Datu-babesa
- 7) Kontratu publikoak


—0,1 puntu ordu bakoitzeko, gehienez, 10 puntu

Berdinketarik geratuz gero, sailkapen-ordena hurrengoan agertzen den moduan egingo da:

1. 2. edo gorako hizkuntza-eskakizuna duena
2. Administrazio publikoan esperientzia puntu gehien lortu duena.
3. Epaimahaiak letra bat zozkatu eta puntuazio berdinak ordenatuko dira hautagaien lehenengo abizenaz.

Seigarrena.- Gorabeherak

Deialdia, bere oinarriak eta oinarriotatik zein epaimahaien jardunetatik datozen administrazio egintza guztiak aurka ditzakete interesdunek, beti ere Herri Sektorearen Araubide Juridikoaren



DERIOKO UDALA

legeak eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak jasotako kasu eta moduetan.

Zazpigarrena.- lan poltsa erabiltzeko irizpideak

Lan poltsa egingo da xede bakar honekin: Derioko Udalean aldi baterako zerbitzuak emango direla titularren baimenak, exedenziak, oporrak edo mediku-bajak gertatzen direnean. Dena den, lan-poltsa ezin da erabili lanpostuak hutsik geratzen badira

Aldi baterako beharra gertatzen denean hori betetzeko prozedura hau izango da:

- a) Beti, lan egiteko moduan dagoen lehen hautagaiari dei-tuko zaio lehenik.
- b) Lan eskaintza bakoitzeko 3 dei egingo dira gehienez, egun berean. Deiak erantzuten ez badira, zerrendaren hurrengo hautagaiari daituko zaio.
- c) Kontratuari uko egiten bazaio, poltsan behin betiko baja egingo da; salbu, uko egiteko arrazioa honelako bat bada:
 - Administrazio publikoan zerbitzua ematen badago.
 - Deia jasotzen duenean mediku-bajan badago
 - Honelakoetan egotea: Amatasun egoeran, aitalasun egoeran, seme-alabatzat hartze egoeran edo seme-alabak edo pertsona nagusiak jagoten.

Ukatzeko arrazoiak behar bezain ziurtatuta egon beharko dira.

- d) Baita behin betiko baja emango zaie horrela eskatzen dutenei.



DERIOKO UDALA

I. ERANSKINA

ESKAERA EREDUA

..... jaunak/andreak
zenbakiko nortasun agiri nazionala duenak, egoitza, (e) ko kaleko,
zenbakian duenak, (posta kodea:, telefonoa:.....; eta e-maila:)

HONAKOA ADIERAZTEN DU:

Derioko Udalan aldi baterako zerbitzuak emateko, titularren baimenak, eszedentziak, oporrak edo mediku-bajak gertatzen direnean, lan-poltsa bat osatuko dela jakitun geratu eta hautagai gisa onartzea nahi du

HONAKOA AITORTZEN DU

— Deialdian eskatzen den titulua badauka eta eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen ditu

— Ez dago baztertuta inongo herri administrazioetik diziplinazko espediente baten bidez, ez eta eginkizun publikoak betetzeko desgaiturik ere.

— Ez dauka lanpostuaren berezko eginkizunak normal betetzea eragozten dion gaixotasun edo muga fisiko nahi psikikorik.

— Indarrean dauden lege xedapenek ezarritakoaren arabera, ez dago sartuta ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko ezein kausetan.

— Eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditu eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

— Eskaera honi honakoak eranstean dizkio:

- NANaren fotokopia.
- Deialdian eskatutako titulu konpultsatuen fotokopia.

— Merezimendu zerrenda hau alegatzen du:

Hizkuntza eskakizuna edo baliokidea	Puntuazioa



DERIOKO UDALA

Administrazio publikoa	Iraupena hilabetez	Puntuazioa
TOTAL:		

Sektore pribatua (enpresa)	Iraupena hilabetez	Puntuazioa
GUZTIRA:		

Egindako ikastaroa	Ikastaroa ematen edo homologatzen duen erakundea	Ordu kopurua	Puntuazioa
GUZTIRA			

Horregatik.

HONAKOA ESKATZEN DU:

Proba horietako onar dezetela.

.....(e)n, 2018ko aren (e)(a)n

(Sinadura)

(*) Eskabide honetan jasotzen diren datu pertsonalek datu pertsonalen fitxategi automatizatu bat osatuko dute; horren helburua hautaketa prozesu hau eta haren ondorioz sortzen diren lan



DERIOKO UDALA

poltsak kudeatzea izango da. Fitxategi horren arduraduna langileria saila da, eta haren aurrean, eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak erabili ahal izango dira.